


**EUSKAL HERRIKO  
AGINTARITZAREN  
ALDIZKARIA****BOLETIN OFICIAL  
DEL  
PAIS VASCO**

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Administrazioa: Duque de Wellington, 2  
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Franqueo concertado: 8/98

Administración: Duque de Wellington, 2  
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA****827**

AGINDUA, 1994ko otsailaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitatez kanpoko herri ikastetxeetako gobernuko organoak hautatzeko procedura arautzen duena.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, bere zioen adierazpenean oharterazten du, bai ikastetxearen hezkuntzako, ikasketarako eta kudeaketako proiektuak, bai antolakuntza eta iharduera-arraudia onartu eta burutzean, gauzatzen dela ikastetxeen autonomia.

Aipatutako Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen Aldibaterako Erabakietako Lehenengoa betetzeako, honako Dekretu hauek argitaratu ziren: 200/1993 Dekretua, uztailaren 6koa, unibertsitate mailakoak ez diren ikastetxeen antolaketa eta ihardunbide arautegia gertatzeko Batzordea osatzeko era finkatzen duena, eta 201/1993 Dekretua, uztailaren 6koa, aipatutako ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenstan guraso eta ikasleen partaidetzarako gutxienezko ehunekoak zehazten dituena.

Geroago, 1993ko urriaren 15eko aginduak, ikastetxeen antolamendu eta iharduera arraudia batzordeetako kideak lantzeko hautatzeko bidea arautu zuen.

2/1994 Dekretuak, urtarrillaren 18koak, ikastetxeek aipatutako arautegien prestaketa 1994ko martxoaren 1a baino lehenago amaitu behar dutela eta Eskola Kon-

**DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION****827**

ORDEN de 21 de febrero de 1994, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el procedimiento de elección de los Órganos de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, señala en su exposición de motivos que la autonomía de los centros se manifiesta a través de la aprobación y ejecución por ellos mismos de sus proyectos educativos, curricular y de gestión, y de su reglamento de organización y funcionamiento.

Al amparo de la Disposición Transitoria Primera de la citada Ley de la Escuela Pública Vasca, se dictaron el Decreto 200/1993, de 6 de julio, que determina la composición de la Comisión de elaboración del Reglamento de Organización y Funcionamiento de los centros docentes públicos no universitarios, y el Decreto 201/1993, de 6 de julio, que establece los porcentajes mínimos que representan la participación de los padres y de los alumnos en el Órgano Máximo de Representación de los citados centros.

Posteriormente, la Orden del 15 de octubre de 1993, reguló el procedimiento de elección de los miembros de las Comisiones de elaboración de los Reglamentos de Organización y Funcionamiento de los centros.

El Decreto 2/1994, de 18 de enero, señala que los centros han de finalizar la elaboración de los citados Reglamentos antes del día 1 de marzo de 1994 y que la



tseiluak, edo gaurregun ihardunean dagoen horren antzeko gobernu organoak, 1994ko apirilaren 1a baino lehenago onartu behar duela adierazten du.

Aipatutako aurreikusmenak betetzeko zorian daude. Hori dela eta, 1/1993 Legearen Aldibaterako Erabakietako lehenengoaren 4. puntuaren ezarritakoarekin bat, beharrezkoa da unibertsitatez kanpoko herri ikastetxean-tako gobernu organoak hautatzeko prozedura arautzea, Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legeak ezartzen duena betetzeko.

Ondorioz, aipatutako Legeak adierazten duenez, 1994-95 ikasturtea hasi baino lehenago ikastetxeen antolaketari buruzko aurreikusmenak betetzeko,

#### ERABAKI DUT:

##### I. ATALBURUA.

###### XEDEA ETA EZARPEN-EREMUA

*1. atala.* – Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen Aldibaterako Erabakietako Lehenengoaren laugarren azpiatalak aipatzen dituen hauteskunde-prozesuetarako deia egitea da Agindu honen xedea.

*2. atala.* – Unibertsitateaz kanpoko Euskal Autonomi Elkarteko herri-ikastetxe guztiei ezarriko zaie Agindu hau, beti ere, 1/1993 Legearen 1. atalaren lehenengo eta bigarren azpiatalek diotene moduan.

##### II. ATALBURUA.

###### ORDEZKARITZA ORGANO GORENEKO KIDEEN HAUTAKETA-PROZEDURA

###### 1go sekzioa. Arau orokorrak

*3. atala.* – Ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorena bi urteko eperako eratuko da, epe horren barruan eman daitezkeen hutsuneak bete daitezenaren kaltetan gabe.

*4. atala.* – Ordezkaritza Organo Gorenko kideen aukeraketa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabaki dezan epealdiaren barruan egingo da.

*5. atala.* – Ordezkaritza Organo Gorenko Kideak hautatzeko hauteskunde-aldia hasitakotzat eman dezan Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta zazpi eguneko epean, hauteskunde batzorde bat osatuko da ikastetxe bakoitzean. Batzorde horretako osakideak hurrengoak izango dira: Zuzendarria, lehendakaria izango dela, eta Ordezkaritza Organo Gorenean ordezkaririk hautatu behar duen eskola komunitatearen sektore bakoitzaren kide bat, zozketa bidez aukeratuko dira denak. Halaber, ordezko kide bat hautatuko da sektore bakoitzetik.

Honako hauek dira batzorde honen egitekoak, Ordezkaritza Organo Gorenko kideak hautatzeari buruzkoak alegia:

a) Hauteskunde prozesuko ekintzak noiz egingo

aprobación, por el Consejo Escolar u órgano de gobierno actualmente en funcionamiento, debe producirse antes del 1 de abril de 1994.

Próximas a cumplirse las previsiones señaladas, procede, de acuerdo con lo establecido en el punto 4 de la citada Disposición Transitoria Primera, la regulación de los procesos electorales para la constitución de los Organos de Gobierno de los centros docentes públicos no universitarios conforme a lo previsto en la Ley 1/1993, de la Escuela Pública Vasca.

En su virtud, con objeto de que las previsiones de la citada Ley, en relación con la organización de los centros docentes, sean de aplicación efectiva antes del inicio del curso 1994-95, tal como en la misma se indica,

#### DISPONGO:

##### CAPITULO I.

###### OBJETO Y AMBITO DE APLICACION

*Artículo 1.* – Es objeto de la presente Orden la convocatoria de los procesos electorales a que hace referencia el apartado cuarto de la Disposición Transitoria Primera de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca.

*Artículo 2.* – La presente Orden se aplicará a todos los centros públicos que imparten enseñanzas no universitarias en la Comunidad Autónoma del País Vasco en los términos establecidos por los apartados primero y segundo del artículo 1 de la Ley 1/1993.

##### CAPITULO II.

###### PROCEDIMIENTO DE ELECCION DE LOS MIEMBROS DEL ORGANO MAXIMO DE REPRESENTACION

###### Sección 1.<sup>a</sup>. Normas comunes

*Artículo 3.* – El Organo Máximo de Representación de los centros se constituirá por un periodo de dos años, sin perjuicio de la renovación durante este periodo de las vacantes que se produzcan.

*Artículo 4.* – La elección de los miembros del Organo Máximo de Representación se realizará dentro del periodo fijado por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*Artículo 5.* – En el plazo máximo de siete días a partir del siguiente a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Orden del Consejero de Educación, Universidades e Investigación por la que se declare abierto el periodo para la elección de los miembros del Organo Máximo de Representación, se constituirá en cada centro una junta electoral compuesta por el Director, que será su presidente, y un miembro de cada uno de los sectores de la comunidad escolar que deban elegir algún representante en el citado Organo de Gobierno, que serán elegidos por sorteo. Asimismo se elegirá un miembro suplente de cada sector.

Esta junta tendrá los siguientes cometidos referidos a la elección de los miembros del Organo Máximo de Representación:

a) Fijar la fecha concreta en que se han de celebrar

diren zehaztea, ahalik jenderik gehien joan dadin saiatuz.

b) Hautaketa prozedura arautzen duten arauen berri ematea behar-hainbateko publizitatez.

c) Hauteskunde-mahaien osakera sustatzea, horien egitekoak, boto-emanketen buru izatea, bake-giroa zaintza, boto-emanketaren zuzentasunaz arduratzea eta boto-zenbaketa egitea.

d) Hauteskunde prozesuko ekintzak gauzatzeko agindua ematea, honako epe hauei jarraiki:

- Hautagaiak onartzea eta hautesleen zerrendak geratzea: gutxienez zazpi eta gehienez hamar eguneko epea, hauteskunde mahaia osatzen den egunetik kontatzen hasita.

- Hautagaien eta hautesleen zerrenda behin-behinekoz argitaratzea: hauteskunde batzordeak, hautagaiak onartzeko eta hautesleen zerrenda gertatzeko, ezarritako epea amaitzen den egunaren biharamunean.

Hautagairen bat elkartea, antolakunde edo taldeko kide lez aurkezten bada, derrigorrezkoa izango da egoeara horren berri ematea izangaiak aldarrikatzeko unean.

- Izangaien eta hautesleen behin-behineko zerrenden aurkako murtziloak aurkezteko epea: hiru egun gehienez, zerrenda horiek argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita.

- Aurkeztutako murtziloen ebazpena: hiru egun gehienez, murtziloak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

- Izangaien eta hautesleen zerrendak behin-betikoz argitaratzea: murtziloak ebaazten diren egunaren biharamunean.

- Hautaketa ekintzak gauzatzeko epea: gutxienez lau eta gehienez zazpi eguneko epea, izangaien eta hautesleen zerrendak behin-betikoz aldarrikatzen diren egunetik kontatzen hasita.

- Boto-emanketetan lortutako emaitzak argitaratzea eta hautatuak behin-behinekoz aldarrikatzea: hautaketa-ekintza egiten den egunaren biharamunean.

- Hauteskundeetako emaitzen eta hautesleen behin-behineko zerrendaren aurkako murtziloak aurkezteko epea: gehienez hiru egun, horiek argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita.

- Aurkeztutako murtziloak ebaaztea: hiru egun gehienez, murtziloetarako jarritako epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

- Hauteskunde emaitzak eta hautatuen zerrenda behin-betikoz argitaratzea: murtziloak ebaazten diren egunaren biharamunean.

a), b) eta d) idazatietan xedatutakoaren araberako ebaazpenak, ikastetxeko iragarpen-oholtzean jarriko dira.

*6. atala.-* Idatziz ebatzi ez daitezten murtziloak, ebaazpenerako jarritako epea igaro ondoren, ukatutakotzat joko dira.

los diversos actos del proceso electoral facilitando la mayor concurrencia posible.

b) Dar a conocer con suficiente publicidad las normas que regulan el procedimiento de elección.

c) Promover la constitución de mesas electorales que tendrán la función de presidir las votaciones, conservar el orden, velar por la pureza del sufragio y realizar el escrutinio.

d) Ordenar la celebración de los actos del proceso electoral con arreglo a los plazos que siguen:

- Admisión de candidatos y elaboración de la lista de electores: plazo mínimo de siete días y máximo de diez días a partir de la constitución de la junta electoral.

- Publicación provisional de la lista de candidatos y electores: al día siguiente de la finalización del plazo establecido por la junta electoral para la admisión de candidatos y elaboración de la lista de electores.

En el caso de que un candidato se haya presentado como miembro de una determinada asociación, organización o agrupación, tal circunstancia deberá hacerse constar necesariamente con ocasión de la proclamación de candidatos.

- Plazo de reclamaciones contra las listas provisionales de candidatos y de electores: máximo de tres días a partir de la publicación de las citadas listas.

- Resolución de las reclamaciones formuladas: máximo de tres días a partir de la fecha de finalización del plazo de reclamaciones.

- Publicación definitiva de las listas de candidatos y de electores: al día siguiente de la resolución de las reclamaciones.

- Celebración de los actos electorales: plazo mínimo de cuatro días y máximo de siete días a partir de la proclamación definitiva de las listas de candidatos y electores.

- Publicación de los resultados obtenidos en las votaciones y proclamación provisional de electos: al día siguiente de la celebración del acto electoral.

- Plazo de reclamaciones contra los resultados electorales y la lista provisional de electos: máximo de tres días, a partir de la publicación de las mismas.

- Resolución de las reclamaciones planteadas: máximo de tres días a partir de la fecha de finalización del plazo de reclamaciones.

- Publicación definitiva de los resultados electorales y de la lista de electos: al día siguiente de la resolución de las reclamaciones.

Las decisiones adoptadas en virtud de lo dispuesto en los apartados a) b) y d) se reflejarán en el tablón de anuncios del centro.

*Artículo 6.-* Todas aquellas reclamaciones que no sean resueltas de manera expresa se entenderán desestimadas una vez transcurrido el plazo establecido para su resolución.

Behin betiko zerrenden aurka ohizko errekursoa sar daiteke Lurralde Ordezkariaren aurrean, hilabete bateko epearen barruan.

*7. atala.*— Dagokion sektoreko kideetatik edozeini eman dakoieke botoa, baldin eta izangai lez aldarrikatua izan bada.

*8. atala.*— Eskola komunitateko sektoreetako ordezkariek hautatzeko orduan, hautesle bakoitzak, bere boto-txartelean, kasuan-kasuko sektoreari dagozkion ordezkari-kopuru guztiaren bi herenaren hainbat izen idatziko ditu. Bi heren hori zatikizko zenbakia balitz, horren azpiko hurrengo zenbaki osoa hartuko da kontutan. Ordezkari bakarra hautatu behar izanez gero, hautesle bakoitzak, bere boto-txartelean, izen bakarra idatziko du.

Atal honetan ezarritako izangai-izenak baino gehiago jaso ditzaten eta behin baino gehiagotan errepikatutako hautagaien izenak izan ditzaten botoak, baliogabetzat joko dira.

*9. atala.*— Ikastetxe berean ordezkatzeko eskubidea izan dezaten sektoreetako partaide izan dadina, bera partaide deneko sektoreetatik bateko izangaia bakarrik izan daiteke.

*10. atala.*— Duten karguaren arabera Ordezkaritza Organo Goreneko berezko kide izan behar duena ezingo da ordezkari lez aukeratu.

*11. atala.*— Botoa zuzena, isilpekoa eta ordezkaezina izango da.

*12. atala.*— Eskolako arloren bateko hautagaien kopurua baldin eta arlo horrek aukeratu behar dituen ordezkarien kopuru bera edo txikiagoa bada, hautagai guztiak besterik gabe aukeraturik geratuko dira eta, orduan, ez da hauteskunderik egin beharko. Horrela ez bada, jarraian datozen ataletan ezarritakoari begiratu beharko zaio.

## 2. sekzioa. Irakasleen ordezkariak hautatzea

*13. atala.*— Ezohizko bilkura baterako deia egingo dio, zuzendariak, klaustroari, hauteskunde batzordeak ezarritako egunerako; egun horretan egingo da hautaketa-ekintza.

*14. atala.*— Ezohizko bilkura horretan hauteskunde mahai bat eratuko da. Ikastetxeko zuzendaria izango da mahaiburu eta zozketaz hautatutako bi irakasle kideak; azken horietatik gazteenak egingo ditu idazkari-lanak.

*15. atala.*— Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan, Ordezkaritza Organo Gorenerako irakaslegoaren ordezkariak aukeratzekoan, ikaslekiko ardura pertsonalizatua betetzen duen ikastetxeari atxikitako langilegoak hautesle eta hautagarri modura hartuko du parte. Ez dute parte hartuko, ordea, zaintzaileek eta horiei kidekatutako pertsonalak.

## 3. sekzioa. Gurasoen ordezkariak hautatzea

*16. atala.*— Batzordeak ezarritako egunerako, zuzen-

Contra las listas definitivas podrá interponerse recurso ordinario ante el Delegado Territorial en el plazo de un mes.

*Artículo 7.*— Podrá otorgarse el voto a cualquiera de los miembros del sector correspondiente siempre que haya sido proclamado como candidato.

*Artículo 8.*— En la elección de los representantes de los diversos sectores de la comunidad escolar, cada elector hará constar en su papeleta de voto un número de nombres igual a los dos tercios del número total de representantes que correspondan al sector de que se trate. En caso de que dichos dos tercios resultase número fraccionario se atenderá al número entero inmediatamente inferior. En el supuesto de tener que elegir un único representante cada elector hará constar en su papeleta de voto un solo nombre.

Serán nulos los votos que contengan más nombres de candidatos que los establecidos en este artículo y aquellos que contengan nombres de candidatos repetidos.

*Artículo 9.*— Quien en un mismo centro forme parte de varios sectores con derecho a representación, sólo podrá ser candidato por uno de los sectores a los que pertenezca.

*Artículo 10.*— No podrá ser elegido como representante quien le corresponda por razón del cargo ser miembro del Órgano Máximo de Representación.

*Artículo 11.*— El voto será directo, secreto e indelegable.

*Artículo 12.*— En el caso de que el número de candidatos de algún sector de la comunidad escolar sea igual o inferior al número de representantes que deban ser elegidos por dicho sector, todos los candidatos serán proclamados electos sin necesidad de realizar acto electoral alguno. En caso contrario se procederá según lo establecido en los artículos siguientes.

## Sección 2.<sup>a</sup>. Elección de representantes de los profesores

*Artículo 13.*— El director convocará al claustro para la fecha fijada por la junta electoral a una sesión extraordinaria en la que tendrá lugar el acto electoral.

*Artículo 14.*— En dicha sesión extraordinaria se constituirá una mesa electoral cuyo presidente será el director del centro y que estará integrada además por dos profesores elegidos por sorteo, actuando como secretario el más joven de los dos.

*Artículo 15.*— En los centros de Educación Especial en la elección de los representantes de los profesores en el Órgano Máximo de Representación, participará como elector y elegible el personal de apoyo adscrito al centro con funciones de atención personalizada a los alumnos sin que por tal se entiendan los cuidadores y personal asimilado.

## Sección 3.<sup>a</sup>. Elección de representantes de padres

*Artículo 16.*— El director convocará para la fecha

dariak, deia egingo die guraso eta ikasleen legezko ordezkariei, hautaketa-ekintzara joan daitezen.

*17. atala.* – Ikastetxean matrikulatutako ikasleen guraso edo ordezkari legalak hartuko dira hautesle lez, eta bai hautagai lez aldarrikatuak izan direnak ere. Hautagai eta hautatua izateko eskubidea amak zein aitak izango dute, biek batera ere erabil dezaketela eskubide hori eta, ondorioz, ez dago zertan baztertu beharrik batak bestearen eskubideaz baliatzeko duen eskubidea.

Hala ere, «patria potestas» gurasoetatik bakar baten eskuetan dagoenean, «patria potestas» bereganatuta duena bakarrik izan daiteke hautesle eta hautagai.

*18. atala.* – Guraso edo tutoreen ordezkariak hautatzeko orduan, hautesleak direla egiazatzeko, nahiko izango da nortasun agiri txartel ofiziala erakustea.

*19. atala.* – Hautaketa ekintza egin dadin egunean eratuko da hauteskunde mahaia; partaide lez, mahaiburu izango den ikastetxeko zuzendaria eta zozketaz aukeratutako bi guraso edo tutores egongo dira, azken horietako batek idazkari-lanak egingo dituela.

*20. atala.* – Ordezko bokalak ere hautatuko dira; ez batzuk ez besteak ez badira agertzen, zuzendariak eta zozketaz aukeratutako bi irakaslek osatuko dute mahaia; irakasleok, ezingo dira izan irakasleen ordezkariak hautatzeko den hauteskunde mahaiko osakideak.

*21. atala.* – Gurasoek eta tutoreek ihardun dezakete interbentore lez, gutxienez hamar hautesleren abala edo ikasleen guraso-elkarrekin batek proposatuak izan beharko dutela.

#### 4. sekzioa. Ikasleen ordezkariak hautatzea

*22. atala.* – Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta oraingo O.H.O.ko Erdi-Mailako Zikloko ikasleak izan ezik, ikastetxeko ikasle guztiak izan daitezke hautesleak bai eta hautatuak ere.

*23. atala.* – Hauteskunde batzordeak ezarritako egunerako deia egingo die, zuzendariak, ikasleei, hautaketa-ekintzan parte har dezaten.

*24. atala.* – Hautaketa-ekintzaren egunean hauteskunde mahaia eratuko da. Mahaiburu izango den ikastetxeko zuzendariak, eta zozketaz aukeratutako bi ikasle osatuko dute mahaia; ikasleetatik batek idazkari-lanak egingo ditu.

*25. atala.* – Ordezko bokalak ere hautatuko dira; ez batzuk ez besteak ez badira agertzen, zuzendariak eta zozketaz aukeratutako bi irakaslek osatuko dute mahaia; irakasleok, ezingo dira izan irakasleen ordezkariak hautatzeko den hauteskunde mahaiko osakide.

*26. atala.* – Ikasleek ihardun dezakete interbentore lez, gutxienez hamar hautesleren abala edo ikasleen elkarrekin batek proposatuak izan beharko dutela.

establecida por la junta a los padres o representantes legales de los alumnos a la celebración del acto electoral.

*Artículo 17.* – Son electores todos los padres o representantes legales de los alumnos matriculados en el centro y elegibles así mismo todos aquellos que hayan sido proclamados como candidatos. El derecho a elegir y ser elegido corresponde por igual al padre y a la madre, pudiendo ser ejercido por ambos a la vez y no excluyendo, por tanto, el derecho de cada uno el ejercicio de dicho derecho por el otro.

No obstante, cuando la patria potestad se encuentre conferida a uno solo de los progenitores, la condición de elector y elegible recaerá solamente sobre aquel que la tenga atribuida.

*Artículo 18.* – La acreditación de elector para la elección de representantes de padres o tutores, se hará por exhibición del documento oficial de identidad.

*Artículo 19.* – El día de celebración del acto electoral, se constituirá la mesa electoral que estará integrada por el director del centro que será su presidente y dos padres o tutores elegidos por sorteo, uno de los cuales actuará como secretario.

*Artículo 20.* – Se elegirán así mismo vocales suplentes y si no compareciesen unos y otros, la mesa quedará constituida por el director y dos profesores elegidos por sorteo, distintos de los componentes de la mesa electoral para elección de representantes de profesores.

*Artículo 21.* – Podrán actuar como interventores los padres y tutores avalados por un número mínimo de diez electores o propuestos por una asociación de padres de alumnos.

#### Sección 4.<sup>a</sup> Elección de representantes de alumnos

*Artículo 22.* – Serán electores y elegibles todos los alumnos del centro, con excepción de los alumnos de Educación Infantil, Primaria y actual Ciclo Medio de EGB.

*Artículo 23.* – El director convocará a los alumnos para la fecha fijada por la junta electoral a la celebración del acto electoral.

*Artículo 24.* – El día de celebración del acto electoral se constituirá la mesa electoral que estará integrada por el director del centro, como presidente, y dos alumnos designados por sorteo, uno de los cuales actuará como secretario.

*Artículo 25.* – Se elegirán así mismo vocales suplentes y si no compareciesen unos y otros, la mesa quedará constituida por el director y dos profesores elegidos por sorteo, distintos de los componentes de la mesa electoral para elección de representantes de profesores.

*Artículo 26.* – Podrán actuar como interventores, los alumnos avalados por un número mínimo de diez electores o propuestos por una asociación de alumnos.

**5. sekzioa. Administrazio eta zerbitzuetako langilegoaren ordezkariak hautatzea**

*27. atala.- Laboralki edo administratiboki eta eten-gabe, ikastetxeari atxikita egon eta irakaskuntza lana ez deneko egitekoak burutzen dituzten langileek osatzen dute administrazio eta zerbitzuetako langilegoa.*

*28. atala.- Hezkuntza Bareziko ikastetxeetan, Ordezkaritza Organo Goreneko administrazio eta zerbitzuetako langilegoaren ordezkariak aukeratzekoan, zaintzaileak eta horiei kidekatutako langileek ere, hau-tesle eta hautagarri modura hartuko dute parte.*

*29 atala.- Zuzendariak horretarako deia egin eta hauteskunde batzordeak finkatutako egunean egingo dute sektore honetako kideek beren ordezkarien hautaketa.*

*30. atala.- Hautaketa ekintzaren egunean hautes-kunde mahaia eratuko da. Mahaiburu izango den ikastetxeko zuzendariak eta zozketaz aukeratutako adminis-trazio eta zerbitzuetako bi langilek osatuko dute mahaia; administrazio eta zerbitzuetako langileetatik batek idazkari-lanak egingo ditu.*

*31. atala.- Ordezko bokalak ere hautatuko dira: ez batzuk ez besteak ez badira agertzen, zuzendariak eta zozketaz aukeratutako bi irakaslek osatuko dute mahaia; irakasleok ezingo dira izan irakasleen ordezkariak hautatzeko den hauteskunde mahaiko osakide.*

**6. sekzioa. Hauteskunde prozesuaren azken fasea**

*32. atala.- Boto-kontaketa egingo du, mahaia, hautaketa-ekintza bakoitzean, boto-emanketa amaitu ondoren. Kontaketa hori jendaurrean egingo da eta, burtu ondoren, mahaiko kide guztiekin izenpetuko duten akta egingo da, hauteskunde batzordearei bidali-ko zaiola. Agindu honetako 36. atalak dioenerako, egon daitezkeen hutsak bete ahal izateko, botoak lortu dituzten guztien izenak adieraziko dira aktan eta bakoitzak zenbat boto lortu dituen ere bai.*

Lortutako emaitzekin batera, aurkeztu diren era guztieta oharpen eta murtziloen berri emango da aktan. Oharpen edo murtzilork aurkezten bada, murtzilo-egileak ere izenpetuko du akta.

*33. atala.- Boto-berdinketa gertatuz gero, zozketaz ebatziko da hautaketa.*

**7. sekzioa. Ordezkaritza Organo Gorenaren eraketa**

*34. atala.- Bost eguneko gehienezko epearen barruan, hautatuen behin-betiko zerrenda argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, Ordezkaritza Organo Gorenak osatuko du zuzendariak; kidetzat, duten kar-guaren arabera berezko kideak direnak, hautatuak izan diren ordezkariak eta dagokion Instituzio edo Erakun-deek izendatuak izan direnak joko dira.*

*35. atala.- Euren kideei egotzi dakizkiekeen arra-zioen ondorioz ez balu ordezkariik hautatuko sektoree-*

**Sección 5.<sup>a</sup>. Elección de representantes del personal y de administración y servicios**

*Artículo 27.- Constituye el personal de administración y servicios el que vinculado laboral o administrativamente y con carácter permanente al centro realice funciones distintas de las docentes.*

*Artículo 28.- En los centros de Educación Especial en la elección de los representantes del personal de administración y servicios en el Organo Máximo de Representación participarán como electores y elegibles los cuidadores y personal asimilado.*

*Artículo 29.- Los miembros de este sector procederán a elegir a sus representantes en un acto convocado por el director para la fecha fijada por la junta electoral.*

*Artículo 30.- El día de celebración del acto electoral, se constituirá la mesa electoral que estará integrada por el director del centro que será su presidente y dos miembros del personal de administración y servicios elegidos por sorteo, uno de los cuales actuará como secretario.*

*Artículo 31.- Se elegirán así mismo vocales suplentes y si no compareciesen unos y otros, la mesa quedará constituida por el director y dos profesores elegidos por sorteo, distintos de los componentes de la mesa electoral para elección de representantes de profesores.*

**Sección 6.<sup>a</sup>. Fase final del proceso electoral**

*Artículo 32.- En cada uno de los actos electorales, una vez finalizada la votación, se procederá por la mesa al escrutinio de los votos. Efectuado el recuento de los mismos, que será público, se extenderá un acta que firmarán todos los componentes de la mesa, debiendo remitirse a la junta electoral. En previsión de la cobertura de vacantes a la que se refiere el artículo 36 de la presente Orden, se harán constar en el acta los nombres de todos los que hubieran obtenido votos y el número de éstos que a cada uno corresponda.*

En el acta se reflejarán, junto a los resultados obtenidos, las alegaciones y observaciones de cualquier índole que se hubiesen formulado. En este supuesto el reclamante firmará también el acta.

*Artículo 33.- Cuando se produzca empate de votos, la elección se dirimirá por sorteo.*

**Sección 7.<sup>a</sup>. Constitución del Organo Máximo de Representación**

*Artículo 34.- En el plazo máximo de cinco días a partir de la publicación de la lista definitiva de electos, el Director del centro constituirá el Organo Maximo de Representación con los miembros natos del mismo por razón de su cargo, los representantes que hubieran sido elegidos y, en su caso, los que hubieran sido designados por las Instituciones u organismos reglamentariamente establecidos.*

*Artículo 35.- La no elección de sus representantes por parte de alguno o algunos de los sectores de la*

tariko batek, Ordezkaritza Organo Gorenaren eraketak ez du eragozpenik jasango horregatik.

Atal honek aipatzen dituen kasuetarako eta sortu berri diren ikastetxeetarako, Hezkuntzako Sailordetzak, dagokion erabakiak emango ditu Ordezkaritza Organo Gorena eratu ahal izateko.

*36. atala.-* 1.- Ordezkaritza Organo Gorenak bere agintealdia amaitu baino lehen, hautatutako kideen artean izan ditzan bajak, hautatutako ordezkoek beteko dituzte bakoitzak jasotako botu zenbakiaren arabera. Ordezkorik ez balego, betetzeke geldituko litzateke plaza.

2.- Ordezkaritza Organo Gorenerako hautatua izanaren, gero aipatutako Organoko berezko kide izatea dakarkion beste kargu unipersonal baterako hautatua edo izendatuak izan diren irakasleek utzitako hutsuneak, aurreko parrafoan aipatutako eran beteko dira.

3.- Hala ere, eskola komunitateko sektore bateko ordezkarietatik %50a baino gehiago betetzeke baldin badaude, ikastetxeko zuzendariak deitutako hauteskunde prozesu berri batez beteko dira hutsuneok; horretarako arau orokorrak Agindu honetan ezarritakoak izango direla.

*37. atala.-* Ordezkaritza Organo Gorenean gerta dadin edozein aldaketaren berri emango dio, ikastetxeko zuzendariak, Hezkuntzako Lurralde Ordezkartzari.

### III. ATALBURUA.

#### GOBERNUKO PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

*38 atala.-* Gobernuko pertsona bakarreko organoen agintealdiaren iraupena hiru urtekoa izango da.

*39 atala.-* Ikastetxeetako gobernuko pertsona bakarreko organoak aukeraketa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabaki dezan epealdiaren barruan egindo da.

*40 atala.-* 1.- Ikastetxeetako gobernuko pertsona bakarreko organoak hautatzeko hauteskunde-aldea hasitakotzat eman dezan Agindua, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailburarena, argitaratu eta zazpi eguneko epean, zuzendariarien aukeraketa egingo den eguna ezarriko du Ordezkaritza Organo Gorenak eta gutxinez hilabete lehenago argitaratuko du.

2.- Momentu horretan hamabost eguneko epe batihasiera emango zaio, irakasle izangaiet, proposatu nahi duen zuzendaritzar taldea, beren programaren futsezko egitebide eta ontzat emandako merezimenduekin batera, beren kandidatura aurkez dezaten.

*41 atala.-* Zuzendaria aukeratuko deneko bilkura-eguna baino lehen, eskatzen diren baldintzak bete ez ditzaten hautagai-zerrendak utzi beharko ditu Orde-

comunidad educativa, por causas imputables a sus miembros, no impedirá la válida constitución del Organo Máximo de Representación del Centro.

En los supuestos de este artículo y en los centros de nueva creación, la Viceconsejería de Educación dictará las instrucciones que proceda para la constitución del Organo Máximo de Representación.

*Artículo 36.-* 1.- Las bajas de alguno de los miembros elegidos que se originen en el Organo Máximo de Representación antes de la fecha de finalización de su mandato, serán cubiertas por aquellas personas que hubieran sido elegidas como suplentes y según el número de votos obtenidos. Caso de no existir suplentes la plaza quedará vacante.

2.- Las vacantes generadas por los profesores que habiendo sido elegidos representantes en el Organo Máximo de Representación sean posteriormente elegidos o designados para un cargo unipersonal que suponga la condición de miembro nato de dicho órgano se cubrirán de la misma forma.

3.- No obstante, cuando más del 50% de los representantes de un sector de la comunidad escolar se encuentre vacante, se procederá a la cobertura mediante la convocatoria, por parte del Director del Centro, de un nuevo proceso electoral que deberá regirse por las normas generales establecidas en la presente Orden.

*Artículo 37.-* De cualquier modificación que se produzca en la composición del Organo Máximo de Representación, se enviará comunicación inmediata al Delegado Territorial de Educación por parte del Director del centro.

### CAPITULO III. ORGANOS UNIPERSONALES DE GOBIERNO

*Artículo 38.-* La duración del mandato de los órganos unipersonales de gobierno será de tres años.

*Artículo 39.-* La elección de los órganos unipersonales de gobierno de los centros se realizará dentro del periodo fijado por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*Artículo 40.-* 1.- En el plazo máximo de siete días a partir del siguiente a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Orden del Consejero de Educación, Universidades e Investigación por la que se declare abierto el proceso para la elección de los órganos unipersonales de gobierno de los centros el Organo Máximo de Representación fijará la fecha en la que se ha de celebrar la sesión para la elección del Director y la hará pública con una antelación mínima de un mes.

2.- A partir de este momento se abre un plazo de quince días para que los profesores aspirantes al cargo presenten su candidatura con indicación del equipo directivo que pretenden proponer, junto a las líneas básicas de su programa y méritos que consideren.

*Artículo 41.-* Con anterioridad a la fecha en que se celebre la sesión para la elección del Director, el Organo Máximo de Representación deberá rechazar las can-

karitza Organo Gorenak. Erabaki honen aurka errekurtsoa sar daiteke Hezkuntza Lurralde Ordezkarriaren aurrean.

**42 atala.** – Ordezkaritza Organo Goreneko Kideen artetik aukeratuko diren bi irakaslek eta bi gurasok osatuko duten hauteskunde mahai bat eratuko da zuzendariaren aukeraketarako. Mahai burutza, adin nagusiena duen irakasleak egingo du.

**43 atala.** – 1.– Zuzendari berriaren aukeraketa hauteskunde mahaiaren aurrean egingo da artezko eta isilpeko botoz, Ordezkaritza Organo Goreneko Kideen erabateko gehiengoa izango dela beharrezko lehengo ekitaldian.

2.– Erabateko gehiengoa ez lortzea gertatuko balitz, deialdi berria egingo litzateke 48 orduren barruan, lehengo ekitaldian botorik gehien lortu dituzten bi hautagaiak izango direla hautagai eta, era berean, erabateko gehiengoa beharko dela hautatua izateko.

**44 atala.** – Ordezkaritza Organo Gorenak, hautatua izan den zuzendariaren proposamenez, Ikasketaburua, Idazkaria eta ikastetxeen egon daitezkeen gainontzeko gobernuko pertsona bakarreko organoaren izendapena egingo da, ikastetxearen antolamendu eta iharduera araudiak xedatutako gobernuko pertsona bakarreko organoaren izendapena, alegia.

**45 atala.** – Gobernuko pertsona bakarreko organoak izendatuko direnko bilkura-eguna baino lehen, eskatzen diren baldintzak bete ez ditzaten hautagai-zerrendak utzi beharko ditu Ordezkaritza Organo Gorenak. Erabaki honen aurka errekurtsoa sar daiteke Hezkuntza Lurralde Ordezkarriaren aurrean.

**46 atala.** – Aipatutako ekintzak amaitu ondoren hauteskunde-mahaiko lehendakariak honako agiri hauek bidali beharko ditu Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzara ekainaren 20a baino lehen:

a) Ordezkaritza Organo Gorenak, zuzendaria eta gainontzeko gobernuko pertsona bakarreko organoak izendatzeko, egin dituen proposamenak.

b) Proposamenaren gai izan diren hautagaiei buruzko deklarazioa, aukeraketarako eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela utzi beharko dela erasota bertan eta bai horien justifikapena ere.

c) Ordezkaritza Organo Gorenak hauteskunde-prozesua aurrera eramateko egin duen bilkuren akten kopia.

**47 atala.** – Hautagairik ez egotea edo bigarren botakarako eskatzen den gehiengoa ez lortzea gerta dadi-nean, ikastetxeko zuzendariak zirkunstantzia honen berri emango dio Hezkuntza Lurralde Ordezkarriari, aurreko atalean aipatu den eguna baino lehen.

**48 atala.** – Lehen aipatu diren agiri horiek jaso eta aztertu ondoren, Hezkuntza Lurralde Ordezkarriak, proposamenaren gai izan diren hautagaien izendapena egingo du, 3 urtetarako eta urte honetako uztailaren 1etik hasita ekarriko dituztela ondorioak.

**49 atala.** – Hautagairik ez egotea edo bigarren botakarako eskatzen den gehiengoa ez lortzea gerta dadi-

didaturas que no cumplan los requisitos exigidos, siendo este acuerdo recurrible ante el Delegado Territorial.

**Artículo 42.** – Para la elección del Director se constituirá una mesa electoral integrada por dos profesores y dos padres de alumnos elegidos de entre los miembros del Organo Máximo de Representación. La mesa estará presidida por el profesor de mayor edad.

**Artículo 43.** – 1.– La elección del nuevo director se realizará mediante sufragio directo y secreto ante la mesa electoral, requiriéndose en la primera vuelta el apoyo de la mayoría absoluta de los miembros del Organo Máximo de Representación.

2.– Si no se obtiene la mayoría absoluta requerida se procederá a una nueva convocatoria en el plazo de 48 horas, debiéndose realizar la elección respecto a los dos candidatos que más votos hubiesen obtenido en la primera, exigiéndose igualmente el apoyo de la mayoría absoluta para ser elegido.

**Artículo 44.** – El Jefe de Estudios y el Secretario así como los demás órganos unipersonales de gobierno que puedan existir en el centro, de conformidad con lo que se disponga en el correspondiente Reglamento de Organización y Funcionamiento, serán designados por el Organo Máximo de Representación a propuesta del director elegido.

**Artículo 45.** – Con anterioridad a la fecha en que se celebre la sesión para la designación de los órganos unipersonales de gobierno, el Organo Máximo de Representación deberá rechazar, en su caso, las candidaturas que no reúnan los requisitos exigidos, siendo este acuerdo recurrible ante el Delegado Territorial.

**Artículo 46.** – Finalizados los actos anteriores, el presidente de la mesa electoral remitirá a la Delegación Territorial antes del 20 de junio los documentos siguientes:

a) Propuestas de nombramiento de Director y demás órganos unipersonales de gobierno efectuadas por el Organo Máximo de Representación.

b) Declaración de los candidatos propuestos donde hagan constar que reúnen los requisitos exigidos para su elección, junto con la justificación correspondiente de los mismos.

c) Copia de las actas de las sesiones del Organo Máximo de Representación correspondientes al desarrollo del proceso electoral.

**Artículo 47.** – En el caso de que no hayan existido candidatos o cuando éstos no obtuvieran la mayoría requerida en segunda votación, el director del centro enviará comunicación de esta circunstancia al Delegado Territorial antes de la fecha señalada en el artículo anterior.

**Artículo 48.** – Recibida y examinada la documentación anterior, el Delegado Territorial procederá al nombramiento de los candidatos propuestos por un periodo de tres años y con efectos de 1 de julio del año en curso.

**Artículo 49.** – En ausencia de candidatos o cuando éstos no obtuvieran la mayoría requerida en segunda

nean, zuzendaria eta gobernuko pertsona bakarreko organoak izendatuko ditu Hezkuntza Lurralde Ordez-kariak, aldibaterako eta uztailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30erarteko ondorioak izango dituztela.

#### AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.* – Agindu honek, administrazio-ihardunbideari dagokionez, aurreikusten ez duen guztia ebazteko, Herri-Administrazioen Lege-Jaurbidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen Legea ezarriko da.

*Bigarrena.* – Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko otsailak 21.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,  
FERNANDO BUESA BLANCO.

votación, el Delegado Territorial nombrará, según corresponda, al director u otros órganos unipersonales de gobierno, con carácter provisional por un año y con efectos de 1 de julio del año en curso.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* – En todo lo no previsto por la presente Orden en materia de procedimiento será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.* – La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 1994.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,  
FERNANDO BUESA BLANCO.

## Autoridades y Personal

### Nombramientos, Situaciones e Incidencias

#### UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

#### 828

RESOLUCION de 10 de febrero de 1994, de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearena, M. Angeles Oyarzabal Fernández andrea «Soziología» jakintza arloko unibertsitate eskolako irakasle titular izendatzen duena, lanpostu horretarako deialdia 1993ko urtarrilaren 4ko Erabakiaren bidez egin zelarik (urtarrilaren 25eko Estatuko Buletin Ofiziala).

De conformidad con la propuesta de la comisión nombrada por Resolución Rectoral de 22 de septiembre de 1993 («Boletín Oficial del Estado» de 2 de noviembre) para juzgar el concurso para la provisión de una plaza de Profesora titular de Escuela Universitaria, convocada por Resolución de 4 de enero de 1993 de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea («Boletín Oficial del Estado» del 25 de enero), de acuerdo con lo determinado en el artículo 42 de la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria y demás disposiciones que la desarrollan, y habiendo cumplido la interesada los requisitos a que alude el apartado 2 del artículo 5. del Real Decreto 1888/1984 de 26 de septiembre, en el plazo establecido en el punto 1 del artículo 13.

Este Rectorado ha resuelto nombrar Profesora titular de Escuela Universitaria de la Universidad del País

## Agintariak eta Langilegoa

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

#### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

#### 828

ERABAKIA, 1994ko otsailaren 10ekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearena, M. Angeles Oyarzabal Fernández andrea «Soziología» jakintza arloko unibertsitate eskolako irakasle titular izendatzen duena, lanpostu horretarako deialdia 1993ko urtarrilaren 4ko Erabakiaren bidez egin zelarik (urtarrilaren 25eko Estatuko Buletin Ofiziala) eta, lehiaketa hori epaitzeko, Errektoregoaren 1993ko irailaren 22ko Erabakiaz izendatu zen batzorde bat (azaroaren 2ko Estatuko Buletin Ofiziala); batzordearen proposamenarekin bat etorriz, Unibertsitate Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 42. atalean eta berau garatzen duten gainerako xedapenetan ezarririkoaren arabera, eta irailaren 26ko 1888/1984 Errege Dekretuaren 5. atalaren 2. idatzian aipaturiko betebeharrauk interesatuak bete ondoren, 13. atalaren 1. puntuak ezarririko epean bete ere,

Errektorego honek, M. Angeles Oyarzabal Fernández andrea, 14.511.343 NAN zenbakia duena, Universidad